

EZ GAITUZTE INOIZ GEHIAGO ISILARAZIKO

Día Internacional contra las Violencias Machistas

Día Internacional contra las Violencias Machistas

A25

Bortizkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Eguna



Lanaren
Konfederakunde
Nagusia

cgt.org.es
rojonegro.info
@CGT

Día Internacional Contra la Violencia Masclista

Manifestua CGT-LKN #A25 #25N 2018

“Ez gaituzte inoiz gehiago isilaraziko”

Terrorismo matxista gizarte kapitalista honetako gaitz nekagarria da eta bereziki emakumeei, hurrei, transei eta genero eredu patriarkaletara egokitzen ez diren pertsona orori eragiten die. Arraza- eta gizarte-aniztasunaren ukapen sistematikoa merkatuaren beste produktu bat baino ez da, merkatuak berak otzantasunetik eta beharizanetik gu ustiatzeko ahul behar gaitu eta.

Ez dago gobernurik pribilegio patriarkalak dituen Estatu baten barruan segurtasuna bermatu dezakeenik. Estatu feminizidio baten aurrean gaude, izan ere, prebenitu eta errotik kendu beharrean erahilketa matxistak ohitura izango balira bezala ematen dira.

Legea, gizarte burgesaren islada zehatza den heinean, patriarkala eta misoginoa da, hortaz, biktimak garenean kondenatzen gaitu eta harrapakari sexualak amnistiatzen ditu joera matxistak betikotuz.

Sistema judizialak legearen aplikazioan era kontziente batean berebizikoa den genero ikuspegia ukatzen du, emakume eta adingabeen kontra aginduz.

Biktimei eskaintzen zaien arreta falta, aurrekontuen eskasia, publikoa izan beharko litzatekeen zerbitzua pribatizatzen dute eta merkantziak izango balira bezala tratatzen gaituzte, horren ondorioz biktimen babesgabetasuna ematen da eta haien kontrako indarkeria areagotu.

Langileen Konfederakunde Nagusia-tik CGT-LKN klase feminismoa bultzatzen dugu, indarkeria errotik ezabatzeko eta, azkenik, gure bizitzarako eta bere garapenaren segurtasuna bermatuko duen bidezkoa izango den mundu parekidea lortzeko gure kontzientziak eraldatuko duena, hain zuzen ere.

Guk feminismo berri bat daramagu gure bihotzetan



Lanaren
Konfederakunde
Nagusia

cgto.org.es
rojoynegro.info
@CGT